

Prensa oharra

Nota de prensa



Donostiak 1502 trafiko istripu izan zituen 2021ean

2020an baino %9,7 istripu gehiago gertatu ziren, baina 2019an, hain zuzen ere, pandemiak eragindako mugikortasun murrizketarik gabeko azken urtean baino %4 gutxiago

Donostian 1.502 trafiko istripu gertatu ziren 2021ean, iaz baino %9,7 gehiago, baina 2019an baino %4 gutxiago. Kontuan hartu behar da, 2019a pandemiak eragindako mugikortasun murrizketarik gabeko azken urtea izan zela. Era berean, gutxi gorabehera istripuen erdia (732) zauriturik gabekoak izan ziren, eta guztira hiru pertsona hil ziren, 2020an baino bat gehiago, baina 2019an baino bat gutxiago.

Mugikortasun eta Garraio zinegotzi Pilar Aranak eta Hiri-Segurtasun eta Herri-Babeseko zinegotzi Martin Ibabek 2021ko trafiko istripuen datuen berri eman dute. Estatistika honek jasotzen ditu hiri barruan gertatutako eta Udaltzaingoaren interberntzioa behar izan zituzten istripuak.

Autoak eta bi gurpilatako ibilgailuak inplikatu nagusienak

Hiri Segurtasun eta Herri Babeseko zinegotzi Martin Ibabek azpimarratu du, autoak (452 inplikatu) zein motorrak (328) izan direla pertsona zaurituekin gertatutako istripuen protagonista handienak. Kasu gehienetan istripuen kausa distrazioa eta trafiko arauen urraketa izan dira.

Bigarren urtez, istripuen gaineko estatistikak urte osoko Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuen (Patinete Elektrikoen) datuak jasotzen ditu. Horren harian, Mugikortasun eta Garraio zinegotzi Pilar Aranak azaldu du ibilgailu mota horiek 2021ean 44 istriputan egon zirela inplikatuak, hau da, iaz baino 11 gehiago (gogoratu behar da, 2020an lehen aldiz sartu zirela ibilgailu hauen urte osoko datuak estatistikan).

Gainera, Aranak azpimarratu du, bizikletak direla istripuetan gehien inplikatuta egon den hirugarren ibilgailu mota. 2021 ean 181 bizikleta egon ziren inplikatuta zaurituekin egondako istripuren batetan, 2020ean baino 45 gehiago, eta 2019an baino 52 gehiago.

Istripuen ia erdia zauriturik gabekoak

Donostiako 2021eko trafiko istripuen estatistikak erakusten du istripuen %48,7 zauriturik gabekoak izan zirela, eta gainerakoetan izandako zaurituen kopurua (881) iaz baino handiagoa izan zela (800). 881 zauritu horietatik 828 arinak izan ziren, 50 larriak, eta hiru hildako egon ziren. Hildakoen kopurua iaz baino bat handiagoa izan da, baina 2019an baino bat gutxiago. Hildakoak hiru motor gidari izan ziren.

Harrapatze kopurua mantendu da

Mugikortasun eta Garraio zinegotzi Pilar Aranak bere departamentutik zein Hiri-Segurtasun eta Herri-Babeseko departamentutik garrantzi handia ematen zaion estatistikaren beste datu bat nabarmendu du, hain zuzen ere, harrapatzeak.

Prensa oharra

Nota de prensa

Donostian 2021ean 85 harrapatze gertatu ziren, iaz baino bat gutxiago, baina aldiz, harrapatze horietan izandako zaurituen kopurua berdin mantendu da: 95 pertsona harrapatuak izan ziren. Dena dela, 2021ean harrapatze baten ondorioz inor ez zen hil; 89 pertsonak zauri arinak izan zituzten eta 6 pertsonak zauri larriak. Eta horietatik 87 oinezkoak ziren.

Pilar Aranek honakoa azpimarratu du: “Oso garrantzitsua da gidariak zein oinezkoak kontzientziatzea arauak errespetatzeko, izan ere, datuek erakusten dute, orokorrean istripuetan gertatzen den bezala, harrapatze gehienak deskuiduen edo zirkulazio arauak haustearen ondorioz gertatu zirela”.

Aranak gogorarazi du, lanean jarraitzen dutela Datorren Donostia izeneko mugikortasun eskema berrian, eta horri esker, hiriko bide-segurtasuna hobetzen saiatuko direla, trafiko fluxuak berrantolatuz, oinezkoentzat gunee berriak irabaziz eta bidegorri berriak sortuz bizikletaren erabilera sustatzen jarraitzeko.

Istripuen datuak:

Urtea	Istripuak	Hildakoak
2010	1.657	4
2011	1.642	5
2012	1.571	1
2013	1.530	1
2014	1.652	1
2015	1.637	5
2016	1.751	2
2017	1.783	2
2018	1.702	1
2019	1.565	4
2020	1.368	2
2021	1.502	3

Prentsa oharra

Nota de prensa

